

Intxaurreondo

"Gurea hiri malenkoniatsua da"

Aitor Navarrok Donostiari buruzko bere bigarren argazki erakusketa zabalduko du hilaren 21ean, Intxaurreondo Berriko kultur etxean. 25 urte ditu, eta azken boladan, erietxe laguntzaile aritu den arren, argazkigintza erabat maite du.



Jon Lasa 943-455504
Zer aurkituko dugu zure erakusketan?

Nire aurreko erakusketa zabaldu dut. Donostian eginiko 40 argazki bildu ditut. Zuri-beltzez eginak dira, baina marroi kolorez margotu ditut. Hiriko paisaiak eta hiritarrak

erretratatu ditut. Aurpegiak ez ditut argi azaldu nahi izan, errespetuagatik.

Donostiaz ezer berrik erakutsiko al diguzu? Zein da ikusleari bidali nahi diozun mezua?

Donostia ez dela jendeak uste bezalakoa. Hiria ez dago hilik, oso bizirik baizik. Jendeak nahi duena ikustendu, hau da, betikoa: diru asko, "giriak", "pijo"ak... Donostia hiri malenkoniatsua da, triste, baina oso polita. Bestalde, erakusketetan hasi be-

rria naiz, eta, nire ustez, aukera bat eman behar zaigu hasi berrioi. Horrez gain, erakusketa gehienak Asiari eta basamortuari buruzkoak dira, adibidez, baina nork bere herria ezagutu behar du lehenik.

Gure hiriari alde txarririk ikusten al diozu?

Bai, gauean oso giro gutxi dago. Baina hori guztiok dakigu, ez da gauza berria.

Asko kostatzen al zaizu erakusketa antolatzeke tokia aurkitzea?

Nire lehen erakusketa egi-

teko hilabeteak eman nituen batetik bestera. Oraingoan, berriz, duela bi urte Larrotxenekoz zerrendan izena eman nuen aurka eta orain gutxi hots egin didate erakusketa egiteko.

Zer nolako arazoak izan ohi dituzue hasi berriok?

Erakundeek oztopoak jarri ohi dizkigute. Argazkilari ospetsu baten lana hasi berri batena baino askoz ere lehenago erakutsi ohi da. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da gaurko argazkilari ezagunak garai batean hasi berriak izan zirela.

Erietxe laguntzaile lanean aritu zara.

Bai. Argazkilaritza ikasi nuen, eta nire asmoa argazkigintzan jardutea zen. Baina honetaz bizitzea benetan zaila da, betikoek dena jaten dute eta. Beraz, denda bat hartzekotan egon nintzen, baina azkenean, ez nuen egin. Ondoren, psikiatria laguntzaile izateko ikasketak hasi nituen. Abuztura arte, erietxe laguntzaile gisa aritu naiz. Azken hilabetea erakusketa prestatzen eman dut. Erakusketa-aren kontua amaitutakoan, ikasketekin jarraitu nahi dut. Gainera, lan bila hasiko naiz.

Beste erakusketarik egiteko asmorik al duzu?

Jakina. Gorputz atalekin androginoak sortu nahi ditut. Sexologia ikasten ari naiz, eta hainbat ikaskideri laguntza eskatu diet. Oraingoan, baietza eman didate.

"Hasi berrioi aukera eman behar zaigu"

corre corre

**KIROL OINETAKOTAN
AUKERARIK ZABALENA.**

500 ZAPATILA MOTA

EZBERDIN BAINO GEHIAGO AUKERAN.

Elkano 8 • Hernani 3

corre corre

PARMA hotela

Itsaso aurrean.

Bainua, berogailua, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: (943) 42 80 19



LAISTER®
SPORTCLINIC

Urte osoan deskontuak!!!

Zure denda espezialista, marka onenekin
Zure zapaltzeko era kontuan hartu, eta zapatila egokiena gomendatuko dizugu.

Elkano 6 • Tel. eta faxa: (943) 43.07.04